

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Puntu honetan bezeroekin izango dugun harremana zehaztuko dugu, ezinbestekoa dena gure enpresan.

Gure bezeroekiko harremana bi zatitan bana ditzakegu: Eskuratzea eta Atxikipena

1. **Eskuratzea**. Nola irabaziko ditugu gure enpresarako bezeroak?



Gure enpresa hazteko, Erandion dauden tokiko-enpresekin kontaktuan jarriko gara, gure zerbitzuari buruz hitz egiteko eta informatzeko.

Gure enpresa hazteko, Erandion dauden tokiko-enpresekin kontaktuan jarriko gara gure zerbitzuei buruz hitz egiteko eta informatzeko.

Hurbilpenarako hainbat gauza egingo ditugu. Lehenik, telefonoz deituko dugu eta emailaz gure informazioa zabalduko dugu. Bestetik, panfletoak sartuko ditugu postontzietan ditugu, eta Erandioko enpresetara prezentzialki joago gara gure zerbitzuaren berri ematera

2. **Atxikipena**. Nola mantenduko ditugu gure bezeroak? Nola mantenduko dugu haien fideltasuna?

Gure zerbitzua automatizatua da. Azaldutako eran, ez dugu dendarik, eta zerbitzua gure web-orrian aurkituko dute. Ordea, gurekin kontaktuan jartzeko aukera ezberdinak izango dituzte gure bezero guztiek, "Kanalak" atalean azaldutako moduan gmail bat eta telefono zenbaki bat izango dugu. Horrela, autozerbitzu automatizatu baten aurrean aurkituko dira gure bezeroek. Beste modu batean azalduta, ez dugu izango zuzeneko harremanik, baina bai eskainiko dizkiegula behar dituzten erreminta guztiak haiek era errez eta intuitibo batean gure zerbitzua eskuratzeko.

Baita aipa behar dugu hainbat ekimen ditugula gure benefizioak handitzeko, hala nola "premium" suskripzioak eskaintzea

Harreman guzti hauekin, zenbait gauza lortu nahi ditugu. Beste batzuen artean, kontsumitzaile berriak lortzeko era bat da (hau da, gure bazkide kopurua handitu), betiere dauzkagun bezeroak mantenduz. Honekin erosleek esperientzia hobeezin bat jasoko dute, eta esperientzia hau errepikatu nahi izango dute.



Gure enpresak epe luzerako harremanak sortzeko asmoa du, harreman intimoa eta estua sortuz, bezeroak erraz eten ezin duen lotura, eskaintzen dizkiogun onurak lortzeari utziko liokeelako.